

IBILBIDEA 4

EL PASEO

FITXA TEKNIKO


ZAILTASUN MAILA: ■ ERRAZA

ABIAPUNTUA: Urturiko harrera-gunea, Urturi (Araba)

HELMUGA: Urturiko harrera-gunea, Urturi (Araba)

IBILBIDEA: Urturiko golf-zelaia, El Paseo bidezidorra, Urturiko golf-zelaia

PROFIL



DISTANTZIA:

6,610 km

METATUTAKO DESNIBEL

POSITIBOA:

69 m

GUTXI GORABEHERAKO

IRAUPENA:

0:45

DESKRIBAPENA

Ibilbide zirkularra eta laburra da, Urturi herrira hurbiltzen gaituena. Oso luzea ez den arren, bide aldakorra du ibilbide honek; batzuetan, ona, beste batzuetan, aldiz, teknikoki konplexuagoa.

Izki-Arabako Mendialdea BTT Zentroaren ibilbide laburrenetakoa da. Laburra izan arren, bide-zorua ez da oso uniformea. Bide aparta da mendiko bizikletaz ibiltzen ikasten ari direnentzat, ez baita nahikoa pedalei eragitea. Une batzuetan bizikleta kontrolatu behar izango dugu, bideak berak gu kontrolatu gabe, baina arazorik gabe egin daiteke.

Ibilbide hau Izkiko Parke Naturaleko ingurune tipikoan barrena igarotzen da: amezti arrunta, urmaelak, nekazaritza-eremuren bat, etab. Kantabriar mendilerroaren gaineko bistak ere ikusgarriak dira.

Urturiko golf-zelaiako harrera-gunean hasten da ibilbidea [km 0]. Bertako aparkalekuan utz dezakegu autoa. Errepidean behera egingo dugu Urturirantz [km 0,3], eta bidegurutze batera iritsiko gara laster. Han zuzen jarraitu behar dugu, eta, pista on bati jarraituz, Kintana aldera egingo dugu.

Bidean bi bidegurutze topatuko ditugu. Beti eskuinerantz hartuko dugu, eta basoan barrena behera abiatuko gara. Pista estutu egingo da pixkanaka, eta bidezidor bihurtuko da. Kintanara iritsi aurretik, hesi metaliko batekin topo egingo dugu [km 2,48]. Herrira igo gabe, ezkerrerantz joko dugu (hesia igarota) eta pixkanaka gora egingo dugu, pista on batean. Beste hesi bat topatuko dugu. Hori gurutzatu eta aurrera jarraituko dugu.

Aurrerago, beste bi bidegurutze aurkituko ditugu. Ezkerrera hartu behar dugu guk, abiapuntura itzultzeko bideari ekiteko. Hondarrezko zona labur igaro behar izango dugu, eta hor, agian, bizikleta eskuetan hartu beharko dugu. Zona horren ondoren, pista on batean barrena itzuliko gara, azkeneko bidegurutzean ezkerrera eginda, Urturiko golf-zelaiako lakuraino [km 5,84]. Horra iritsitakoan, lehenengo eskuinerantz joko dugu eta gero ezkerrerantz, pista berean. Hala, abiapunturaino itzuliko gara [km 6,61].

MAPA

Testuak eta mapak: **Biotrech S.L.**
 Arabako Inongoi Parkea, Ribotz Enesten 44, Erakina E5 01510 Mirano (Álava-Araba)
 T. 945 010 940 E. info@biotrech.com



	Harrera-gunea
	Abiapunta
	Ibilbidea eta norabidea
	Natura Parkea
	Baso
	Nekazaritza
	Aterpe
	Aparramentu
	Bainuetxe
	Kampin
	Landetxe
	Hotel
	Paradore
	Ostatu-erxe

